

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. KRISIAK SOLDATA-DESBERDINATASUNAK AREAGOTZEN DITU
2. OTSAILA: LANGABEZIA GEHIAGO
3. NAFARROA 2012 PLANA: LEHENGO LEPOTIK BURUA
4. BANKUARENTZAT DIRUA, BAI. GOBERNUENTZAT, EZ
5. ERREFORMA FINANTZIEROA
6. GREZIAKO EGOERA LARRIA
7. PROPOSAMENA: ZOR PUBLIKOAREN AUDITORIA ETA LEGEZ KANPOKOAREN ORDAINKETA EZA

1. KRISIAK SOLDATA-DESBERDINTASUNAK AREAGOTZEN DITU

Berriro ere nazioarteko erakunde baten txosten batek, kasu honetan LANEk eman duenak, ezartzen diren politikak zalantzan jartzen ditu. Txostenaren izenburua, "Laneko desberdintasunak krisi garaian. Europako testigantza"; beronen mezu nagusia, laneko desberdintasunek krisia eragin ez ezik areagotu ere egin dutela.

Krisiak gogorrago jo ditu kolektibo jakin batzuk:

- Gehienetan, doikuntzak aldi baterako kontratua zutenei edota bitartekari agentzien bidez kontratatutako jendeari ezarri zaizkie. Aldi baterako enplegua enplegu-egoeraren aringarri gisa erabili izan da.
- Gazteei bereziki eragin die. Kolektibo honen langabezia-tasa batez bestekoaren bi halakoa gehitu da.
- Gizonezkoen langabezia-tasa emakumeena baino gehiago hazi da, hasieran krisiak eragin handiagoa izan baitu sektore jakin batzutan (eraikuntza eta industria). Hemendik aurrera soldata- eta enplegu-murrizketek (arloan publikoan eta zerbitzu-sektorean) eragin handiagoa izango dute emakumeengan.
- Europa guztian soldata errealean bilakaerak atzera egin du, eta zenbait estatutan baita soldata nominalek ere (Estonian, Letonian, Lituanian eta Europar Batasuneko beste zenbait kide berritan).

- Soldata murrizketak handiagoak izan dira arloan publikoan, lehen unean bederen. Administrazioako aurrekontu-murrizketen ostean arloan publikoan soldata-jaitsiera gehiago izango da, baita lanpostu murrizketak ere.
- Soldata txarra duten langileen kopuruaren gorakadak ez du etenik izan, besteak beste legezko gutxieneko soldata izoztearen ondorioz.
- Goi-goian dauden langileen eta soldata-eskalaren oinarrian daudenen arteko aldea ere handitu egin da.
- Krisiak Europan epe luzera soldata apalak gehitzea eragingo du, baita pobrezia ere (langileen %40ak arazoak ditu hil amaiera iristeko).


Txostenak politikak aldatzeko beharra aipatzen du. Baina Europan agintzen dutenek entzungor giten diete honelako txostenei. Aldatzeko, ezinbestekoa izango da mobilizazioa eta borroka.

Txostenaren Laburpen Exekutiborako sarbidea**2. OTSAILA: LANGABEZIA GEHIAGO**

Pasa den 2012ko otsailean 211.274 langabetu zeuden Hego Euskal Herriko Enplegu Zerbitzu Publikoko zerrendetan izena emanda. Sekula izan den kopururik altuena da hau.

Izan ere, azken urteetako bilakaerari erreparatzen badiogu, krisia hasiz geroztik hain zuzen, datuak oso kezagarriak direla ikus dezakegu. Langabetu kopurua %98,6 igo

da 2008ko abuztutik (106.386etik 211.274 langabetu izatera, 104.906 gehiago).



Langabeziak emakumeei hein handiagoan eragiten die, langabetuen %51,2a emakumezkoa baita, 108.089 emakume langabetu eta 103.185 gizonezko. Bilakaerari erreparatzen badiogu, emakumeen proportzioa jaitsi egin dela ikus dezakegu, 2008ko abuztuan langabetuen %57,6 emakumezkoa baitzen. Dena den, azken hilabeteetan emakume langabetuen proportzioa igotzen ari da, 2011ko abenduan %50,9 izatetik lehen aipatutako 2012ko otsaileko %51,2ra pasa baita (gizonezkoak %48,8 diren bitartean).

Enplegurik gabeko gazteenen (25 urtetik behera) langabeziaren bilakaera izugarria izan da. Krisia hasi zenetik Enplegu Zerbitzu Publikoko zerrendetan izena emanda daudenen kopurua %129,6 igo da, 8.626tik 19.801era.

Sexuaren arabera aztertzen baditugu 25 urtetik beherako langabezia datuak, guztiaren %55,4a gizonkoa dela ikus

dezakegu. Dena den, 25etik beherako emakumeen langabeziaren bilakaera are okerragoa izan da gizonezkoena baino, emakumeena %146 igo baita 2008ko abuztutik eta gizonezkoena %117,8.

Langabeziaren bilakaera ezberdina izan da sektore ekonomikoen arabera ere. Zerbitzuena izan da langabetu gehien izan dituen 2012ko otsailean (128.324), hurrena industria sektorea (34.867), eraikuntza (25.871), eta azkenik nekazaritza sektorea (4.617). Aurretik lanik gabe zeudena 17.595 izan dira.

Bilakaerak 2008ko abuztutik langabezia gehien hazi den sektorea zerbitzuena izan dela erakusten du, 59.544 langabetu gehiago baitago (%86,6 igo da), 16.126 langabetu gehiago dago industria sektorean (%86 gehiago), 13.901 gehiago eraikuntzan (%116,1 gehiago) eta 3.385 langabetu gehiago nekazaritza sektorean (%274,8 igo da langabetu kopurua sektore honetan).

	2008 abuztua	2012 otsaila
Zerbitzuak	68.780	128.324
Industria	18.741	34.867
Eraikuntza	11.970	25.871
Nekazaritza	1.232	4.617

3. NAFARROA 2012 PLANA: LEHENGO LEPOTIK BURUA

Nafarroa 2012 Plana 2008ko apirilean jarri zen martxan, eta "2008-2011 urteen artean izan litekeen dezelerazio ekonomikoa arintzeko asmoarekin" eta honi aurrea hartzeko asmoarekin sortu zen.

Horretarako Nafarroako Gobernuak (orduan UPN-CDN) PSNrekin batera, eta CEN patronala eta UGT eta CCOO sindikatuekin batera 4.508,9 milioi eurotako inbertsio publikoa egiteko aurreikuspena sinatu zuen. Hau batik bat eraikuntza ugari egitean oinarritzen zen, hala nola Nafarroako Kanala, Pirineoko Autobidea edota AHT bera besteak beste.

ELAk bere egunean Plan hau aztertu eta modu ezkorrean baloratu zuen, zeuzkan zenbait aspektu kritikatu:

- Ez zuen inongo elementu berritzailerik, eta ez zen egoera ekonomikoaren inongo diagnosirik egin
- Enpresarien mesedetarako zen soilik
- Plan hau egiterakoan propagandak benetako arrazoiak baino pisu gehiago zuen, eta ez zuen inongo eztabaida sozialik izan
- Inbertsio soziala alde batera uzten zen eraikuntza asko egitearren

Orain UPN-PSNren Gobernuak Plan honen bilakaeraren balorazioa egin du, 2011ko abenduaren 31rako 1.878,2 milioi eurotako inbertsioa suposatuz zuela azalduz.

Nafarroako Gobernuak Plan honekin orain arteko azpiegitura eta obra publiko izugarriak egiteko bidetik jo du, ekonomikoki, sozialki eta ingurugiro aldetik jasangaitzak direnak.

AHT, Navarra Arena Pabilioia edo Los Arcos-eko Zirkuitoa bezalako obretan hainbesteko dirutzak gastatzen segitzeak, Nafarroan dugun egoera ekonomiko zaila okertu besterik ez du

egiten.

Gobernuak horrelako ekintzei lehentasuna ematea tamalgarria da. Nafarroan 52.000 langabetu daude, 18.000 pertsona langabezia zerrendetan izena emanda eta inongo diru-sarrerarik gabe, eta bitartean murrizketa oso gogorrak egiten ari dira osasuna, hezkuntza edota zerbitzu sozialetan (oinarrizko errentan emandakoa eta prestazioen izoztea bezain larriak direnak). Barcinaren gobernuak lehentasuna ematen die gutxi batzuen negozioei jende askoren oinarrizko beharrak betetzeari baino.

Plan honek inolako berrikuntza izan gabe jarraitzen du, eta enpresarien mesedetarako dago soilik, propaganda izugarriaz baliaturik.

Beraz garai batean egindako kritika mantentzen dela esan genezake. Baina bada zerbait are larriagoa dena, Gobernuak egiten ari den 2013-2016 urteetarako Inbertsio Publikoen Planean jarraipena eman nahi zaiola.

4. BANKUARENTZAT DIRUA, BAI. GOBERNUENTZAT, EZ

Otsailaren 29an Europako Banku Zentralak (EBZ) 529.530 milioi euro utzi zizkien 800 erakunde finantzieroei, 3 urteko epean eta %1eko interes tasan, inflazioaren azpitik argi eta garbi (%2,6). Diru kopuru hori EBZ abenduan baldintza berdintsuetan bankuei utzitako beste 489.000 milioi euroei gehitu behar zaio. Diru kopuru guzti hori uzteko orduan ez da inongo baldintzarik ezarri erakunde finantzieroak jarraitu beharreko ekintzetan. Gogoan izan behar da EBZak ez zuela inongo mugarik jarri utzi beharreko diru kopuruan. Bai abenduan eta bai oraingo

honetan, erakunde finantzierok eskatutako guztia onartu da.

Bi hilabetetan Europako Banku Zentralak 1,02 bilioi euro utzi dizkie banketxeei, kopuru horrek Estatu espainiarreko urtebeteko BPGd-a bikoizten duelarik. Kopurua izugarria da, Europar Batasuneko BPGd-ren %8,14a da. Argi dago beraz, ez dagoela inongo arazorik Banketxeei inongo baldintzarik gabe diru kopuru izugarriak uzteko.

Bestalde, gobernuei zor publikoa murrizteko eskatzen zaie, egungo egoeran horrek dakartzan ondorioekin: langabezi gehiago, txirotasuna eta gizarte babes eza, geroago azalduko dugun Greziako kasuan gertatzen ari den bezala.

Bitartean, Banketxeei nahi duten diru guztia uzten zaie, interes tasa bajaran eta gobernuei zorpetzea debekatzen zaie, zorrarengatik interes tasa nabarmen altuagoak ordainaraten zaie eta ganero maileguak jasotzeko gizartearentzat bidezkoak ez diren politikak ezarrarazten dizkie. Banketxeek negozio borobila egiten dute. Maileguak %1ean jasotzen ditu eta eta estatuen zorra interes tasa askoz ere altuagoan erosten dute. Zergatik onartzen zai hori?

Estatu espainiarreko erakunde finantzierok EBZak abenduan eta otsailean utzitako diruaren %20 jaso dute, 200.000 milioi euro. Esto supone unos 200.000 millones de euros. Nahikoa da zifra hau estatuko administrazioen defizit publikoarekin aldaratzea, 2011 urtean 85.000 milioi eurokoa izan zen.

Botere politiko, ekonomiko eta mediatikoak, defizit edo zor publikoak suposatzen duten arazoaren inguruan bonbardatzen gaituzte behin eta berriro. Halaber, ez da posible azaltzea gobernuak arazko bat direla eta banketxeak soluzioa. Datuen arabera, hori esatea posible da gobernuak botere ekonomiko eta finantzieroren menpe egotea nahi bada. Eta hori d gertatzen dena.

5. ERREFORMA FINANTZIEROA

Ekonomiako Ministeritzaren arabera, erreforma finantzieroa sektoreko konfidantza eta sinesgarritasuna berreskuratzeko egin da. Orain arte onartutako neurrien bidez da lortu Estatu espainiarreko banketxeen ondareen egoera hobetzea ezta ekonomiaren finantziazioa hobetzea ere.

Gobernuak onartutako erreformak erakunde finantzieroen arazodun aktiboak onbideratzea dauka helburutzat. Espainiako Bankuaren arabera arazodun aktiboak dira berankortasun egoeran dauden higiezin-sektoreari emandako maileguak, ez ordaintzeko arrisku handia daukatenak eta esleitutako aktiboak. Onartutako dekretuan honakoa erabakitzen da:


- Arazodun aktibo horientzat hornikuntzak gehitzeko dotazio zehatz bat sortu, irabazien kargu joango den ezohiko aportazio baten bidez. Balioa 25,000 milioi eurokoa izango da.
- "Kapital metaketa" gehigarri bat sortu, hau da, kapitala hainbat prezedimenduren bidez indartu (kapital handitzea edo bono bihurkorrekin, mendeko zorra, etab.). Metaketa hori

%20koa izango da soruari dagokien aktiboetan eta %15ekoa bidean dauden promoziorentzat. Banatu ez diren irabazien kargura joango da dotazioa 15.000 milioi euroko balioarekin.

- Hornikuntza bat eratu etorkizunean hondatu daitezkeen aktiboen gain. %7ko dotazioa izango da eta 10.000 milioi euroko balioa izango du. Hornikuntza irabazien gain egingo da.

Hornikuntza hauek 2012ko abenduak 31 baino lehen egin beharko dira.

Hurrengo grafikoa egungo estaldurari gehituko zaizkion hornikuntzak eta metaketak adierazten dira.



Gainera, erakundeen arteko fusioak egiteko eta onartzeko baldintzak erregulatzen dira.

Aurrezki kutzen erregimen juridikoari buruzko aldaketak ere lantzen dira dekretuan eta mugatu egiten dira laguntza publikoa jaso duten erakundeen kontsailari eta zuzendarien ordainketak.

Bukatzeko, erreformak planteatzen duenarekin ez da argi geratzen onartutako neurriak nahikoa izango diren Estatu espainiarreko erakunde finantzierok gaun egun daukaten zuloa estaltzeko. Erreforma honek ez du inongo eraginik izango maileguak ekonomiara bueltatzerako orduan. Ez du ziurtatzen etxebizitzaren prezioa jaitsiko denik eta egitekotan zalantzan jartzen da maileguak eskeiniko liratekeen hauek eskuratzeko. Bestalde, erreforma honen bitartez, fusio prozedurak areagotu eta erraztuko dira, sektoreko enplegua murriztuz enpresa txikiei eta kontsumorako finantziarioa ez delarik erraztuko.

Beste behin, erreforma honek banketxe haundien interesak babesten ditu.

6. GREZIAKO EGOERA LARRIA

Otsailaren 28 eta 29an, sindikatu, erakunde eta mugimendu sozialetako kideez osatutako delagazio europear bat Grezian egoteko aukera izan zuen, bertako egoera lehen eskutik ezagutzeko aukera izan zuelarik.

Greziako biztanleria garesti ari da ordaintzen TROKIAK ezarritako neurriak: soldata eta pentsioen murrizketa, gizarte zerbitzuen deusezte, txirotasuna eta gosea. Egoerak okerrera egiten du egunetik egunera. Honen aurrean herritarrek ez dute inoren "karitaterik" nahi, Europako herrialdeen artean estrategia amankomun bat izatea eskatzen du, krisi demokratiko eta ekonomiko hau areagotzen duten politika neoliberaleri aurre egiteko.

Delegazio europear honek hainbat bilera izan zituen bertako sindikatuekin, mugimendu sozialekin, ezkerreko talde

parlamentarioarekin eta greban dauden langile batzuekin. Guztiek nahi dute benetako egoera zein den erakutsi European erakusten dena bestelakoa baita. Europako krisiaren eragileak greziarrak direla sinistarazi nahi digute eta hartzen dituzten neurri gogorrek justifikatzeko benetakoak ez diren datuak argitaratzen dituzte. Onartutako neurriek ondorio latzak izan ditu biztanleriarengan:

- Soldatak sektore publikoan %55eraino jaitsi dira. Sektore pribatuan eremurrizketa hauek %50erainokoak dira zenbait kasutan eta gainera lanorduak ere ari dira murrizten.
- Pentsioak murriztu dira eta jubilaziorako adina ere luzatu da (kasu batzutan 70 urte bitarteraino).
- Milaka langile kanporatu dituzte.
- Gizarte gastua murriztu dute.
- Elektrizitatea, telefono zerbitzua, ura, garraioa, etab. ari dira pribatizatzen.
- Aberastasun publikoa inbertsore pribatuen eskuetara ari da pasatzen, pribatizazioprozesuen bitartez.
- Negoziazio kolektiboaren akordioak desagertarazi dituzte, banakako akordioak ezarriz. Kaleratzeak merketu dira.
- Fiskaltasunean eman diren aldaketa guztiak herritarren aurka doaz. Zuzeneko zergak igo dituzte berogailu sistemaren oliaren prezioa bikoiztu dute, eta horrez gain elektrizitatearen prezioak gorakada handia izan du, kasu batzuetan fakturei aurre egiteko baliabiderik gabe daude.
- Langabezia bikoiztu egin da azken bi urteotan, %20erarte iritsi delarik. Gazteen artean langabezia %45erarte igo da.

Neurri guzti hauen ondorioz biztanleriaren %20a txirotasunaren mailaren azpitik bizi da eta hirietako kaleak eskalez bete dira.

Hasiera batean, egia da jende askok uste zuela murrizketa neurriak beharrezkoak zirela krisiari aurre egiteko. Orain gehienek uste dute neurri hauek ez direla baliozkoak. Eraso guzti hauen aurrean mobilizazioa eta borroka da greziarren erantzuna. Azken bi urteetan 16 greba orokor deitu dituzte eta biztanleriaren erantzuna erabatekoa izan da. Politika neoliberalen aurka borrokatzen dute eta ez dute etsiko TROIKA Greziatik bota arte eta gobernuak politika bortitz hauek geratu arte. Bitartean, gobernuaren erantzuna mobilizazioen aurrean errepresio polizial bortitza da. Jendea beldurtu nahi dute baina argi dago, jendearen erantzuna zein izaten jarraitzen duen ikusita, ez dutela lortuko.

Beraz, beharrezkoa da European jendea kontzientziatzea politika neoliberaleri aurre egiteko eta Grezia bezalako herrieldeen suntsipena geratzeko.

Europako delegazio honek Atenasera egindako bidaian elkarlanerako bideak eraiki ditu lan amankomun bat egiteko.

7. PROPOSAMENA: ZOR PUBLIKOAREN AUDITORIA ETA LEGEZ KANPOKOAREN ORDAINKETA EZA

Onartutako murrizketa berriek krisialdia areagotuko dute, langabezi gehiagorekin eta zor publikoaren handitzearekin batera. Egungo krisialditik ateratzeko baliabideak gizarte justiziaren ikuespegitik finkatu behar dira. Ez da nahikoa ekonomia eskaera publikoaren bidez aktibatzea. Eskaeraren

hazkundeak eragindako erreaktibazio ekonomiko hau zerga politika diru-biltzaileago eta banatzaileagoarekin bateratzen badugu, baina zor publikoa kontuan izan gabe, diru bilketaren hazkundera zor publikoaren ordainketagatik gutxitu egingo da.

Kapitalistek ez dute inolako asmorik eragin duten kaltea ordaintzeko; baina, krisia eragin zutenek ez badute ordaindu nahi, zergatik ordaindu behar du herriak? Hainbat herrialdek lortu dute herritarrek sortu ez dituzten zorrak errefusatzeko, nazioarteko zuzenbidearen xedapenekin bat; adibidez, *zor gorrotagarria* esaten zaion kontzeptua. Zorra gorrotagarria ote den jakiteko, aurrez hiru baldintza behar dira:

- Gobernu batek mailegu bat jaso du herritarrek jakin eta onetsi gabe.
- Mailegua bideratu da herriarentzako onuragarriak ez diren jardueretara.
- Mailegu-emaileak badaki aurreko bi baldintzen berri.

Zor gorrotagarriko kasu gehienak XIX. mende bukaerakoak eta XX. mende hasierakoak dira, eta ordainketak eteteko erabaki guztien atzean AEB zeuden. Bada, haiek berek ekarri dute azalera berriz ere kontzeptu hori, Irak inbaditzean eta okupatzearen karira; baina AEBak saiatu ziren kontzeptu hori ez erabiltzen. Ekuadorrek, esaterako, NDFri eta hartzekodunei aurre egitea erabaki zuen, zor gorrotagarriarena argudiatuta, eta frogatu zuen frogatu zuenez zorra, gorrotagarria izateaz gain, ilegítimoa eta konstituzioaren aurkakoa ere bazela. Froga horri esker, Ekuadorrek gutxienez ere 7.000 milioi dolar aurreztu zituen.

Euroguneko herrialdeetako zor publiko gehienak ez dira legítimoak, herriaren interesen kontra doazen politiken ondorio baitira. 2011ko martxoan, Greziako politika eta lan arloko mugimenduetako ordezkari batzuek Auditoria Batzorde bat osatzeko ekimenari ekin zioten. Batzordearen zeregina litzateke, batetik, Greziako zorraren zer zati den gorrotagarri eta ilegítimoa argitzea eta, bestetik, greziarrek aipatu zorra ordaindu beharrik ez dutela frogatzea. Greziak irtenbide bakarra du; hots, aipatu zorra ez ordaintzea, neoliberalismoan oinarritua baitago. Ez daude behartuta finantza-merkatuetako ustelkeriak metatutako zorra ordaintzera. Ez litzateke morala izango zor ezmorala ordaintzea. Greziako herriak bere eskubideen alde egin behar du gobernuaren, EBren eta NDFren aurka. Argi dago errespetua irabaziko bada, borroka erabili behar dela, bai eta indar batasuna ere, eta ez zaiela men egin behar moralik gabeko hartzekodunei.

Eta, bitartean, zertan dabilta euroguneko bazkideak? Oroz gain, hesiak jartzen saiatzen ari dira gaizki esaten zaion greziar krisiaren ondorioak bankuetara ez iristeko, eta dirua mailegutuan uzten ari dira, gizarte murrizketa hondagarrien ordainez. Egia esan, gauza bakarra lortu dute; herrialde bat pobrezian hondoratzea, gutxi batzuk aberasteko, eta beti bezala, gutxi horiek holako jarduerak inpunitate osoz egiten dituzte.

Beraz, auditorien abiapuntua herrialde bateko zor publikoa ez-legítimoa den esango digun zorraren jatorria eta konposaketaren azterketa da. Egungo krisialdiaren aurrean, auditoria alternatiba egokia da murrizketen aurrean, eztabaidarako espazio berriak irekitzen baititu. Zorraren azterketak hainbat

aztergai izan behar ditu: gizarte testuingurua eta testuinguru historikoa, nork egin zituen zorrak, zeintzuk izan ziren hartzaileak, kontratuen xedapenak, baliabideen helburua, interes tasen garapena, zorra ordaintzeko erabili den BPGd-rekiko eta aurrekontu publikoarekiko portzentaia, egindako pribatizazioen azterketa, eta nola ez, aberastasunaren banaketaren eta zorraren arteko harremana.

AZTERKETE BULEGOA